

KORONABIRUSA - ATZOKO DATUAK

| GIPUZKOAN | | NAFARROAN | |
|------------------------------|----------------------|------------------------------------|-------------|
| 0 positibo berri | 1.574 hildakoak EAEn | 10 PCR positibo berri | 515 hildako |
| 2.313 positibo guztira* | 18 UCIn, EAEn | 5.326 PCR positibo guztira | 9 UCIn |
| *Hernanin 61 Astigarragan 21 | | Sendatuak EAEn: 16.966; Naf: 6.814 | |

Gaurtik aurrera, EAeko hiru lurraldeen arteko mugikortasuna berreskuratuko da, besteak beste

Gaurtik aurrera, Euskal Autonomia Erkidegoko hiru lurraldeen arteko mugikortasuna berreskuratzea izango da «aldaketa haundiena». Horrez gain, haurreskolak irekiko dira eta haur zein gazteentzako aisialdiko ekintzak baimenduko dira. Arantxa Tapia Garapen Ekonomiko eta Azpiegituretarako sailburuak, hainbat azalpen eman ditu asteburuan zehar, hirugarren faseari buruz, eta fase honetako baldintzak ere helerazi ditu.

URUMEA 3GARREN FASEA

Koronabirusak eragindako alarma egoera, «apaltzen» ari da apurka, eta jadanik, 3garren faseari ekingo dio Euskal Autonomia Erkidegoak gaurkoan. Aldaketa nabarmena, «EAeko hiru lurraldeen arteko mugikortasuna berreskuratzea izango da», eta horrez gain, haurreskolak ere irekiko ditzute, eta haur zein gazteentzako aisialdirako ekintzak ere baimendu dituzte.

Arantxa Tapia Garapen Ekonomiko eta Azpiegituretarako sailburuak, 3garren faseari buruzko nondik norakoak azaldu zituen asteburuan zehar, eta honako hauek dira 3 garren fasean ezarri diren baldintzak.

Lehenik azaldu zuen, mugikortasun «mugagabea» izango dela EAeko lurraldeen artean, eta gainera, pertsonak inolako mugarik gabe mugitu ahal izango dira Euskal Autonomia Erkidegoan zehar.

Garraioari dagokionez, «maiztasunak eta edukierak %100 ean» berreskuratuko direla jakinarazi du Tapiak, baldin eta Euskal Autonomia Erkidegoaren eremuan egiten badira osorik. Ibilbide osoan maskara erabiltzea nahitaezkoa izango

da, eta pertsonen artean segurtasun distantzia mantentzen saiatu beharko da.

Biltzeari dagokionez, 20 laguneko familia eta gizarte bilerak egin ahal izango dira «etxebizitza eta lokal pribatuetan edo erabilera publikoko espazio irekietan», osasun-agintariek ezarritako babes pertsonaleko eta distantzia fisikoko arauak errespetatuz.

«Pertsonak, inolako mugarik gabe mugitu ahal izango dira Euskal Autonomia Erkidegoan zehar»

«Aisialdiko jarduerak»

Hautzaindegia eta haurreskolak ireki daitezke «zero eta hiru urte bitarteko haurrentzat, edukiera ohiko gehieneko edukieraren edo ratioaren % 60ra mugatuta».

Haur eta gazteei zuzendutako aisialdi jarduerak, berriro jarriko dira martxan, «erakunde eskudunek ezartzen dituzten arauekin bat etorritik».

Unibertsitateen kasuetan, EAEn kokatutako unibertsita-



Hautzaindegia eta haurreskolak ireki daitezke, zero eta hiru urte bitarteko haurrentzat, edukiera %60ra mugatuta.

teek aurrez aurreko jarduerak akademikoak egin ahal izango dituzte.

Ostalaritza eta merkatuak

Merkataritza establezimenduetan eta lokalak, minoristak, azoka txikiak, merkataritza-zentro eta merkataritza-parkeak: gehieneko edukiera %60koa izango dela jakinarazi dute.

Taberna, jatetxe, eta elkarte gastronomikoetako establezimenduetan, «edukiera muga kentzen da, baldin eta mahaien edo, mahai-multzoen artean bi metroko distantzia egokia bermatzen bada». Gainera baimenduta dago barran zerbitzua ematea, «bezeroen edo bezer taldeen artean bi metroko distantzia fisikoarekin».

Hoteletako eta turismo-ostatuak eremu komunak, %60ko edukiera muga izango dute, pertsonen arteko gutxieneko segurtasun distantziari eutsita.

Taberna eta jatetxez gain, liburutegietako edukiera haunditu dute, eta ez liburutegikoak soilik, «museoak, azoka-esparruak, erakusketa aretoak eta zinemak: %60ko edukiera izango dute, gehienez».

Aire zabaleko kultur jarduerak ere baimendu egingo dira, %60ko edukierarekin, hau da, «gehienez ere 1.000 pertsona, eta eserleku aurrez esleituta egongo da».

Kirola

Kirol-instalazioetan, igerileku-

ak barne, baimendutako edukieraren % 60koa izango da baimendutako gehieneko edukiera. Gainera, «aldagelak eta dutxa-guneak erabil daitezke, pertsonen arteko gutxieneko distantzia errespetatuz». Talde-entrenamenduei berrekitea baimentzen da, kirolarien arteko elkarrekintzarekin, arrauneko, banku finkoko eta pilotako kiroletan, diziplina guztietan, «ekainaren 20tik aurrera lehia-keten hasiera prestatzeko». **K**



Zorionak Nagitz!
Ondo pasa zure egunean, muxu potolo bat!
9 urte

FUNERARIA ORBEGOZO BEILATOKIA

Asegururik ba al duzu?
Deitu Orbegozora

24 orduko tlfnoa.
943 33 10 20

www.funerariaorbegozo.com

Zentrala - Latsunbe 7, Hernani

* Zerbitzu partikularrak eta aseguru txarrekin
* Beilatokiak
* Erresketak
* Lekualdatzeak
* Eskelak, korroak...

HERNANI ANDOAIN ASTIGARRAGA URNIETA GOIZUETA

TILIN * TOLON

BELAR DENDA

TERAPIA NATURALAK KONTSULTAK

943 55 56 94

Txirrika, 10 - HERNANI

DORRONSORO

Ogi egin berria beti zure eskura

Obradore nagusia Akarregin
Akarregi poligonoa 14A-2
DENDA, KUTIXIAK ETA KAFETEGIA
Ordutegia: 5:30-14:30 / 16:00-20:00
Jailegunetan: 7:00-14:30

Denda herriko kaxkoan
Lizeaga kalea 4
OGIA ETA BOLLERIA AUKERAN
Ordutegia: 7:00-14:00 / 17:00-21:00
Jailegunetan: 7:00-14:00

EGURALDIA
GAUR Giro nahasia izango dugu gaurko egunean, eta fresko egingo du. Ipar-mendebaldeko haizearekin zaparradak sartuko dira, bereziki ipar partera, bertan sarri egingo du euria. **Min.11° / Max.17°**

BIHAR Biharko ez dugu aldaketa handirik espero. Euri kontuekin jarraituko dugu, bereziki ipar partean, bertan zaparradak sarrago botako ditu. **Min.11° / Max.18°**

DOBERA
EUSKARA ELKARTEA

LAGUNTZAILEK

Hernaniko Udala

Astigarragako Udala

Ereñotzuko Auzo Udala

GOIZUETAKO UDALA

ARANOKO UDALA

TAXIAK: 943 550093 (Hernani) 622 222 343 (Astigarraga) 948 514037-948 514019 (Goizueta) **UDALTAINGOIA:** 943 248900 (Hernani) 943 335230-699 487 587 (Astigarraga) **DYA:** 943 464622
AUTOBUSAK: **Garayar:** 943 556658 **Areizaga:** 943 452708 **Korreoa Goizueta-Hernani:** 948 514037 **ANBULATORIOA:** 943 006666 - 900 203050 (Hernani) 943 335644 (Astigarraga) 948 510800 (Goizueta) **Egunez:** **Castilla** Urbietan, 7 (Hernani) **943 552941** **Gauetz:** **Urrutia** Etxeberri, 1 (Hernani) **943 557738** **Goizueta:** Nagusia 64 **948 514353**

EUSKAL GOBIERNUA
GOBIERNO VASCO

Gipuzkoako Foru Aldundia

DOBERA BAZKIDEAK / KRONIKALARIAK

Asteburu honetan, hileta mezak

Larunbat eta igande honetarako, hainbat meza jarri ditu Urumea Harana Pastoral Barrutiak, eta horrez gain, larunbat honetan konfinamendu garaian hildakoen aldeko hileta mezak ospatzen hasiko dira, arratsaldeko 19:00etan hasita.

URUMEA ELIZA

Koronabirusak, eragindako egoeraren aurrean, elizak ere hainbat neurri hartu zituen herriararen segurtasuna bermatze aldera. Hala ere, egungo egoera ikusita, aste barruan, orain arte moduan hileta mezak egiten jarraitzen du Urumea Harana Pastoral Barrutiak, San Joan Baitailatzailea parrokiaren.

Hala ere, larunbat honetan, «konfinamendu garaian hil zirenen hileta mezak ospatzen» hasiko dira, arratsaldeko 19:00etan hasita.

Larunbat honetan gainera, San Antonio eguna denez, Ereñotzuko elizan, goizeko 08:00etan, lehen meza eskainiko da, eta 10:30etan berriz, meza nagusia.

Igandean, «Gorpuzti»

Igandean, Gorpuzti jai eguna ospatuko da, eta egun horretan, Urumea Harana Pastoral Barrutiak, *Cáritas* egingo dio aipamena, «konfinamenduan, zerbitzua eskainiz egon baita lehen hartzen zituen behar-tsuekin, eta larrialdian gehitu zaizkien familiekin».

«Gure senide maiteak, gogoan»

Hernaniko Parroki elkarteak, Koronabirusaren eragina dela eta, «martxoaren erditik apirilaren bukaera artean hil zaizkien senide maiteak gogoratu eta agurtu» nahi izan ditu, eta «Jainkoari gomendatu nahi ditugu». Hori horrela, larunbat honetatik, uztailaren 18ra bitar-

teko larunbatetan, haien aldeko hileta mezak ospatuko dira. Egutegian ikusi daitezke egun eta ordutegiak. **K**

HILETA EGUTEGIA

Ekainaren 13, **19:00etan:** Jose Sanchez Villoria eta Amaya Irazusta Ocariz.

Ekainaren 20, **19:00etan:** Antonio Sanchez Sanchiz eta Angel García Loa

Ekainaren 27, **19:00etan:** Antonio Tejedor Ortiz, Francisco Barriga Mateos eta Josefina Cátedra Galdon

Uztailak 4, **19:00etan:** Rosario Anabitarte Zapiain, Antonia Casco Rodríguez eta Nicolás Marín Sánchez

Uztailak 11, **19:00etan:** Dalila Andrés Panadero eta Basilisa Barrioso Benito

Uztailak 18, **19:00etan:** Teodora Vegas Modroño eta Diego Barragán Mercé

Datorren denboraldiko izen ematea, gaurtik

Astigarragako Mundarro, azken hilabeteetan, burubelarri ibili da hurrengo denboraldiaren hasieraren nondik norakoak zehaztu nahian. Hori dela eta, erabaki du, izen emate prozesuan aldaketak egongo ditela.

ASTIGARRAGA MUNDARRO

Hurrengo denboraldiaren hasieraren nondik norakoak zehazten jardun du Astigarragako Mundarrok. Hori dela eta, jakinarazi du, azken hilabeteetan bizi dugun egoera kontuan izanik, aurten, izen emate prozesuan aldaketak egongo direla, «bai kirol eskolarako, bai eta klubeko taldeetan izena emateko ere».

Beraz, Mundarrok erabaki du, gaurtik, uztailaren 8ra arte «biak barne», eskoletako aurretiko izen ematea egingo dela, 2009, 2010, 2011 eta 2012 urteetan jaiotako haurrentzat. Izen ematea online egingo da, eta hasiera batean «oinarriko informazioa izango da», izan ere, sail bakoitzeko informazio zehatzagoa

prozesu hau amaitzean jasoko baita.

Bestalde, infantil mutilak, hau da 2007 eta 2008an jaiotakoak, gazte edo jubenil mailara arte, klubean dagoen sailen batean jokatu nahi duten jolaskari berriek, ekainaren 15etik, uztailaren 15 arte izango dute aukera izena emateko, hau ere online izango dela azaldu dute.

«Gaurtik uztailaren 8ra arte, eskoletako aurretiko izen ematea online egingo da, 2009, 2010, 2011 eta 2012 urteetan jaiotako haurrentzat»

«Konpromezua», Mundarrok

Mundarrok, gainera, udaleko gizarte zerbitzuen sailarekin harremanetan jardungo duela adierazi du, «jakitun gara ez direla momentu gozoak familia askorentzat, horregatik alde aurretik gure konpromezua adierazi nahi dugu, jarduera fisikoren praktika guztientzako eskuragarri izan dadin».

Edozein zalantza izanez gero, astigarragakomundarrofke@gmail.com helbide elektronikora idatzi daiteke. **K**

JASOTA BEZALA

Gutuna argitaratzeko ezinbestekoak dira: izena eta bi abizen, NAN edo EHNA erakustea eta telefonoa. | Gehienez 1.800 karaktere onartuko dira. | Kronikak beste hizkuntzetan jasotako kartak euskeratzen ditu. | Kronikak ez ditu bere gain hartzen sail honetan esaten direnak, edo itzultzeko garaian izan daitezkeen gaizki ulertuak. | Irainak, debaldeko salaketak eta difamazioak ez dira onartuko.

Eukaliptoia Urumea bailaran

Azken urteotan agerikoa zen gure mendietan eukaliptoaren landaketa ugaritzen ari zela eta oraingo honetan are eta nabarmenago geratu da. Horretan, bere ekarpena egin du Ereñotzuko Etxola-Berri parajearen egurzaleek egin duten zuhaitz mozketak eta landaketa berriaren gainean Haritzalde Naturzaleen Elkarrekin egindako salaketak; orain artean, kezka, gaiaren gaineke sentzibilitate berezia zutenek baldin bazuten, jarduera honek beste auzotar askorengan barruak nahastea ekarri du.

Ereñotzuko Auzo Udalak bere kezka azaldu nahi du eukaliptoaren landaketa nagusitzen ari delako auzo udalaren lurralde eremuaren barruan, izan ere, ugariak dira eukaliptoaren monolaborantzak sortzen dituen kalteak nabarmen dituzten azterketak. Hor daude gaian adituak direnen azterketa ugari, non besteak beste, biodibertsitatearen nahiz inguruko ekosistemen gaineke kalteak, gure bailarako erreken nahiz Urumea ibaiaren hidrodinamikaren gainekeak edo inguruko fauna nahiz floraren gaineke kalteak aipatzen dituzten. Ezin dugu ahaztu ere, eukaliptoaren lan-

daketak nagusitzen diren inguruetan sute arriskua asko handitzen dela.

Gogoratu nahi genuke, inguru horietan, bai Hernaniko udalak eta baita Ereñotzuko auzo udalak ere bertako natur ondarea aztertu eta balioan jartzeko egitasmo ezberdinak diruz lagundu izan dituztela. Egitasmo horietan aurkikuntza garrantzitsuak egin izan dira eta, horretaz, badakite zerbait Joserra Diez, Ibai Olariaga eta Iñaki Sanz-Azkuek, Biologian adituak eta ikertzaileak. 2007az geroztik hainbat ikerketa egin dituzte bertan.

Biodibertsitatearen Nazioarteko Eguna egunarekin bat, aiapatutako hirukoteak, idatzi bat atera zuten hainbat medioetan eta ondoko eskaera egiten zuten: Urumea bailaran eukalipto landaketa gehiago ez egitea. Dagoeneko egin diren eukalipto landaketen artean korridore naturalak sortzea. Landaketak egin diren eremuetan, errekatik 100 metroko distantzian bertako basoa mantentzea edo errestauratzea, bisoiaren eta muturluzaren kudeaketa planek adierazten duten bezala. Basogintza plan egituratu eta antolatua izatea arro mailan,

betiere, bertako ekosistemen eta espezieen kontserbazioa kontuan izanik. Bertako erreken eta espezie babestuen jarraipena egitea, ikerketa sustatuz, egin diren landaketek biodibertsitatean izan dezaketen eragina neurtzeko. Egiten diren basogintza lanek neurri zorrotzak betetzea eta jarraipena egitea. Bailara hauei babes-maila handiagoa ematea, aurretik planteatu izan diren mikroerreserba sare, Parke Natural eta KBE bilakatuz. Era-kundeen eta ikertzaileen arteko koordinazioa.

Ereñotzuko Auzo Udalak bat egiten du eskaera horrekin eta, jakitun izanda ere arlo honetan eragiteko duen gaitasuna mugatua dela, Urumea inguruko natur-ondarea balioan jartzeko, ezagutarazteko eta babesteko konpromisoa hartzen du. Aldi berean, dei egiten diegu, arlo honetan zer esana duten eragile guztiei, konpromiso bera har dezaten. Bide horretan, Ereñotzuko Auzo Udala bidelagun izango gaituzue.

Unai Erroitzenea Gamio
Ereñotzuko Auzo Udala

Ostiral honetan amaituko da Musika Eskolako aurre matrikulazio epea

HERNANI MUSIKA ESKOLA

Zabalik dago ekainaren haiseratik, Hernaniko Musika Eskolako 2020-2021 ikasturteko aurrematrikulaziorako epea. Bizi dugun egoerak eragina, gestioak online izango dira, eta online ezin dutenentzat, «aukera presentziala egongo da aurretik hitzordua eskatuta badauka». Online gestioa egiteko musikaeskola.hernani.eus webgune bidez egin daiteke. Beste bi modu ere badaude, *zuzen*, musika@hernani.eus helbide elektronikora idatzi edo deitu, 943 33 70 50 telefono zenbakira. Aipatu moduan, modu presentzialean eginez gero gestioa, bulegoko ordutegia honakoa da: goizeko 12:30etatik 14:30etara, eta arratsaldeko 15:30etatik, 20:00etara. Gainera, Hernaniko Musika Eskolak, eskaintza pedagogiko zabala du aurtengoan. Hastapen taldeak eskainiko dira, 4-7 urte bitarteko haurrekin, lengoia musikala landuko da, mota askotako instrumentuak jotzen ikasiko dute, hala nola, akordeoia, pianoa, biolina, txeloa, gitarra, saxoa, tronpeta, tronboia. Euskal instrumentuak ere ez dira atzean geratzen, besteak beste, txistua, dultzaina, txalaparta, alboka, trikitia eta panderoa.

IRAGARKI MERKEAK

Iñigo Royo Masajista. Masajea, naturopatia, osteopatia, kinesologia, reiki, homeopatia, akupuntura,... **Deitu: 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Agustindarren plaza, 4)**